

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan? Bezero asko beharko ditugu gure proiektuak funtziona dezan, izan ere, taberna bat izanda, bezero gehiagorekin ekonomikoki gora egingo luke. Bezero asko edukiko ez bagenu baina betikoak etorriko balira hamarkadak atzera bidaiatzera eta momentu onak pasatzera, nahikoa izango litzateke, hori bai, kontsumitu egin beharko dute aurrera eramateko gure proiektua.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako? Bezeroak oso garrantzitsuak izango dira guretzako, gure proiektua aurrera eramateko, izan ere, bezerorik gabe, ez litzateke kontsumorik egongo eta kontsumorik gabe, ezingo litzateke taberna bat aurrera eraman. Taberna batek funtziona dezan, bezeroak behar ditu kontsumitzeko eta tabernak ekonomikoki dituen galerei erantzuteko.